



Jakinarazpena / Comunicación

Biziberritze Industrialerako Oinarriak

Bases para un Renacimiento Industrial



EUZKADI BURU BATZARRAK

AURKEZTUTAKO

JAKINARAZPENA

" BIZIBERRITZE INDUSTRIALERA KO OINARRIAK "

BIZIBERRITZE INDUSTRIALERAKO OINARRIAK

TESTUINGURU SOZIOEKONOMIKOA

Amaitu berri dugun urtean erregistratu ziren adierazle makro-ekonomikoek erakutsi dute ekonomiaren eta enpleguaren suspertzea eman dela Euskadin. Euskal ekonomiak 2015 urteko ekitaldia itxi du %2,8ko hazkunde metatuarekin, eta enpleguaren hazkundera espainiar estatuan eman dena baino erritmo bizkorragoan hazi da. Beraz, Euskadiko BPGaren goranzko eboluzioari eutsi zaio, industria eta berari lotutako zerbitzuak izan direlarik hazkunde honen eragile nagusiak. Produkzio industrialaren adierazleak azaroan % 3.9ko portzentajea egin du gora, eta barruko eskaria ere hazi da.

Gure herrian 2015 urtean finkatu den suspertze ekonomikoa, gaur egun esan genezake 2016 urtean ere bide beretik joan daitekeela. Dena dela, ziurgabetasunak eta aldaketak biziko ditugun urterantz abiatzen gara, eta une hau eraldaketa garairako atea ere izan daiteke.

"Historia modernoan izan den garai bizigarrienean bizi gara. Ideia berriak daude eta etorriko dira, zientziak eta teknologiak onduko dituztenak. Eta horien fruituak aldatuko digu gure bizitza eta ekonomia, giza harremanak, elkarbizitzeko antolaketa eta nazioarteko gizartea ulertzeko dugun era"

IanGoldin. Oxfordeko Unibertsitateko Irakaslea . Davosen 2016an.

Esan dezakegu sortzen ari den mundu berriaren atarian aurkitzen garela eta,beraz, aldaketak nagusi izango diren garai historikoaren baitan gaudela. Hori ez da txarra. Alderantziz, orain arte izan ez dugun aukera datorrela esan nahi du. Eta, horretarako, oso ondo ulertu behar ditugu ekonomian eta nazioarteko gizartean ematen ari diren aldaketa eta eraldaketa dinamikak. Ulertu egin behar ditugu 1945 urtetik eta gaur egunera arte ekonomiaren protagonista izan diren eredu finantzario eta industrialetan ekonomia digitala sartu izanak egituretan eragin dituzten aldaketak. Irailaren 11z geroztik nazioarte mailako geopolitikan eman diren aldaketa sakonen ondorioz nazioarteko geoekonomian eman den doikuntzaren benetako esanahia. Europar Batasunak inguru bortitz eta konplexura egokitzeko prozesua bizi izan du hainbat faktorek eraginda, besteak beste ISISen presentzia, Europar Batasunaren eta Euro-Asiar Batasunaren arteko hika-mikak eta ,batez ere, Batasunaren gobernu aldi berrietara egokitzeko beharrak suposatzen duen erronka. Erronka abiada bizian dator azken aldiko migrazio krisiagatik eta azken aldi honetan geometria aldakorraren ideia zaharra kontuan hartzen hasi delako eta, horren barruan, bi abiaturako hazkunderaren ideia, zeinetan Batasunaren baitan talde federal zorrotza egituratuko den.

Egoera horretan, Iparralderantz begiratu behar dugu eta gure indarren balioa azpimarratu behar dugu, Atlantikoko ardatzarekin bat eginik, hori delako etorkizuna eraikitzen joateko modurik zentzuzkoena, orain alditik, alegia. Konfiantza eragingo duen eta ziurgabetasunak gaindituko dituen orainean oinarrituta; faktore anitz eta askotarikoen ondorio izango den konfiantza, lehiakortasunerako faktore baliotsu gisa aurkezten zaiguna.

Une honetan, Euskadik egonkortasuna eta ziurtasuna eskaintzen ditu; erakunde publikoetatik konfiantza eskaintzen du. Konfiantza bi aldiz baliotsua, ziurgabetasunez jositako nazioarteko eszenatokiari aurre egiteko moduko egoeran gaudelarik. Gure derrigorra da egonkortasun eta konfiantza egoera horri eustea, giro horretan oinarritzen baitira kontsumoa eta inbertsioa. Eusko Jaurlaritzak egin ditu berari dagozkion lanak. Euskadiri egonkortasuna eman dio, aurrekontua badugu eta defizit publikoa kontrolpean dugu. Europar Batasunak gobernuei jartzen dizkien baldintza guztiak betetzen ditu, hazteko eta gizarte ekitateari eusteko aukera ematen diguten gizarte politika eta politika ekonomikoa ditugu. Azken finean, Euskadi Europan ari da onenen artean kokatzeko lanean eta helburu hori lortzeko moduan dago, bere alderdi onetan oinarrituta ahultasunak gainditzeko behar diren jarduerari adre osoz ekiten badie eta une honetan aurkitzen garen aukera baliatzen badu .

Ziurgabetasunak markatutako nazioarteko testuinguruan jardun beharko dugu

Ematen du espainiar estatuak inguratzen gaituen mundua ulertzeko gaitasuna galdu duela eta benetako erronkei bizkarra emanda bizi dela, Europar Batasunaren baitan gertatzen ari denaren aurrean erabat ezjakin eta arduragabe agertu dela, europar egonkortasunari dagokionez Herri ahul eta eraginik gabeko bihurtu dela eta botere arloan ezerezeko bihurtu dela konturatzen bagara.

Era berean, denboran luza daitekeen ezegonkortasun politikoa etorri ahal zaigu. Europar Batasunak eratuko den gobernu berriari doikuntza neurri berriak eskatuko dizkio. Lehenengo eta behin, azken gobernuak korrika eta presaka eta hauteskunderen atarian onartu zuen aurrekontutik hasita. Defizitari ezarritako neurriak betetzeko, aurrekontuari 9.000 milioi euro kendu beharko litzaizkioke, Europako agintariek behin eta berriz adierazi digutenaren arabera. Eta, hori denak, Euskadin ere eragiten du eta ziurgabetasuna sortzen du.

Beste alde batetik, suspertze egoerari laguntzen dioten faktoreak dauden arren, besteak beste petrolioaren prezioaren beherakada eta Euroak dolarrarekiko duen balioaren beherakada, Europak hazkunde ahul batean segitzen du, inflazio tasa baxuarekin eta BCEk moneta politika hedakorraren aurrean behar bezala bizkortu gabe. Baina, hori dena ez da nahikoa suspertze ekonomiko bizia bultzatzeko. Ezinbesteko du austeritate zorrotza

alde batera uztea, defizitarekin zuhur izaten jarraitu arren. Europak bultzada sendoa behar du hazteko. Inbertsio berriak behar ditu eskaria pizteko eta inbertsioak dinamizatzeko.

2016 urtea, gainera, burtsek Txinako ekonomiak bizi izan duen abiaduraren moteltzeari eman dioten erantzunak markatu du. Txinako industriaren eboluzioari buruz ezagutu diren datu txarrek beheranzko bidean jarri dituzte mundu mailako gainerako burtsak. Ez da erraza izango zer gertatzen den jakitea eta Txinako hazkundearekin gertatuko dena aurreikustea.

Une honetako beldurrik handiena da Txina doikuntza zorrotz baten hasieran egon daitekeela, nazioarte mailako jardueraren motore izateraino (mundu osoko BPGaren % 17) eraman duten hazkunde biziko hogeita hamar urteren buruan. Egoerak erakusten du esportazioa eta sektore publikoa ordezkatzera etorri beharko lukeen kontsumo pribatua ez dela espero zen bezala bizkortu.

Egoera honetan, ulertu beharra dago Txinan eman den abiaduraren moteltze hau bere ekonomia potentzia teknologiko, industrial, demografiko eta militar gisa doitzeko bizi duen prozesuaren ondorioa izan dela. Horren guztiaren irakurketak hausnarketa egitera bultzatu behar gaitu Europan eta Euskadin; bereziki berpizkunde teknologiko eta industrialean aurrera egiteko beharko diren oinarri eta abiadurari dagokionez.

Eta, amaitzeko, petrolio gordinaren prezioaren beherakadak zerikusituzena du ez bakarrik energiaren sektorearen inguruko gai geopolitiko eta egiturako aldaketarekin baizik eta baita, epe laburrean dibisen artean antzeman daitezkeen eta horren ezkutuan ez dagoen gudarekin.

Laburbilduz, mahai gainean ditugun datuak ulertu behar ditugu, gure hazkundearen oinarri ekonomiko eta produktiboak eraldaketa prozesuan daudelako eta beste eredu baterako bidean aurkitzen direlako, zeinetan gure ekonomiaren eraginkortasuna eta lehiakortasuna giza kapital bikaina izatean eta mugiarazten jakitean oinarrituko den, eta lankidetzak lehiatzaileak elkarrekiko interesa eta ekosistema propio, ireki eta erakargarria sortzea esan nahiko duen.

Etorkizunerako kokapena bilatzeko orduan une honetan ezinbesteko dugu gure buruarekin zorrotzak eta exijenteak izatea eta hausnarketa serioa egin behar dugu gure hezkuntza sistema eta gure sistema teknologiko eta produktiboa Europako erregiorik lehiakorrenen mailan egon ote daitezkeen ikusteko. Hausnartu behar dugu gure prestazio publikoen sistema diru sarreren arabera orekatuta ote dagoen. Eta, azken finean, gure finantza oinarriak, publikoak eta pribatuak, oraingoarekin alderatuta ezberdina izango den eta beharrezko bikoitzari erantzungo dion eredurako bidea hartu ahal duen; alde batetik Europako Banku Zentralak arautzeko onartu duen marko berriarekiko errespetua erakustea eta bestetik, plataforma finantzario berriak sortzea teknologikoki aurreratua eta lehiakorra izango den industria sarea finkatzeko.

Industriaren berpizkundearen aldeko apustua

Euskadi herri industrialala da nagusiki, eta bere bizitza maila altua industria eta manufacturaren oinarrian eraiki du. Hori da gure izateko eraren ezaugarri nagusia, gure nortasuna.

"Euskal kasua", industriaren alde egindako apustuan oinarritutako herri garapenak bizi izan duen arrakasta den aldetik, mundu mailako unibertsitatek prestigiotsuenetan aztertzen da. Eta, zer ikusten dute Amerikako irakasle horiek, beste herrialdeetako irakasle horiek, gure egoera eta gure prozesua aztertzen dutenean?. Beste hainbat faktorearen artean, inbertsio publikoa lehiakortasunerako motore gisa erabili izan dugula; esparru publikoen eta publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren sarea sortu dugula, gure apustu estrategikoak indartu dituenak; gure burua gobernatzeko ditugun ahalmenak eraginkortasunez baliatu ditugula; ikerkuntzaren aldeko apustua egin dugula, gure politikaren elementu nagusi gisa; eta pertsonetan oinarritzen diren erakundeak ditugula, iraunkortasun helburuetarako etorkizuna sortzen duten elementuak direlakoan, eta abar.

Jarraian, gure sare sozio-ekonomikoaren lehiakortasunerako funtsezko jotzen ditugun arlo nagusi batzuk aztertuko ditugu:

Balio erantsia duten jardueren aldeko apustua egitea:BasqueIndustry 4.0

"Enpresa aro digital berria" berrasmatu beharra dugu. Material berriak, fabrikazio prozesu berriak (fabrikazio batukorra, errealitate birtuala eta gehitua, ziber-segurtasuna,...), gailu adimendunak orokortu behar dira eta digitalizazioa orokortu behar da, datu kopuru handiak kudeatzeko gaitasuna (Big Data).... horiek sektore guztiek eta beste askok ireki dute batzuek "iraultza industrial berri" jotzen dutenerako atea, industriarako aro berria eta gu **BasqueIndustry 4.0** izenez ezagutzen hasi garena.

Teknologiak gidatuko duen aldi berria izango da, enpresei emango die beren produktuei balio erantsi handiagoa emateko aukera, produktuak eta zerbitzuak pertsonalizatu ahaliko dituzte, merkatu berrietara sartzeko eta negozio eredu berriak irekitzeko aukera izango dute, eta horietarako ezinbestekoa izango da bizkortasun maila areagotzea eta antolaketan/gobernuan maila handiko hobekuntzak sartzea.

Ezagutzaren transferentzia areagotzea

I+G+B kontzeptuak enpresen zerbitzura egon behar du eta beren beharrazanean erantzun behar die. Asko dago hobetzeko konexio horretan, ezagutza sare industrialera transferitzeko prozesuan, I+G+B kontzeptuan inbertitu den diru publikoak emaitza ukigarriak izan ditzan, industriarekin lankidetzan jarduteko eta lan bateratu horrek lehiakortasuna areagotuko duten patente eta produktu gehiago ekar ditzan.

Zentro ezberdinetan metatzen den ezagutza teknologiko "berdea" euskal industrian aplikatzeko, aukera berria izan daiteke oraindik oso arakatua izan ez den baina hazteko aurreikuspen bikainak eskaintzen dituen merkatuan. Euskadi ingurumen alorrean iraunkorrago eta jasangarriago bihurtzea da hurrengo urteei begira gidatu beharko gaituen pizgarria.

Nazioartekotze kultura sustatzea

Lehiakortasuna hobetzeko elementu nagusienetakoa nazioartekotzea delarik, helburua ez da soilik gure enpresak nazioarteko esparruan sartzea, baizik eta gure Herria, osotasunean nazioartekotzea eta gure eragile ekonomikoak, zientifikoak, hezkuntza, gizarte eta kultura alorretako eragileak mundura zabaltzea .

Eta, horretarako guztirako, ezinbesteko dugu esparru honetan dauden eragileekiko lankidetzat instituzionala, Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoa baliatuz, hau da, Eusko jaurlaritza , hiru Foru Aldundiak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako merkataritza ganberak, guztiak elkarlanean. Organo hau eratu da enpresen nazioartekotze gaietarako leihatila bakar gisa.

Aldi berean, herrialde ezberdinetan eta enpresa eta erakunde ezberdinetan lanean edo/eta ikasten ari diren pertsonak batu behar ditugu, BASQUE COUNTRY markaren enbaxadore izan daitezten eta gure herrian sortzen den jarduera enpresarial eta instituzionalaren bultzatzaile lana egin dezaten.

Eta, kontuan hartu behar dugun azken gai garrantzitsu gisa, ezinbesteko jotzen dugu atzerriko inbertsioak erakartzea. Horixe da nazioartekotzearen beste zutabe garrantzitsua. Gero eta garrantzi handiagoa eman behar diogu atzerriko kapitala erakartzeari, aberastasuna, teknologia, merkatuak ekarriko dituzten eta gure herrian enpresak eta sektoreak finkatuko dituzten inbertsio industrialak ekartzeari. Ez gara espekulazioaz ari, ezta epe laburreko eragiketez ere, baizik eta eszenatoki globalean oinarrituta gure lurrian ondo finkatuta jarduteaz.

Tamaina. Aliantzak eta lankidetzak (ekosistema industriala)

Gure enpresei tamaina handiagoa ematea oso kontu garrantzitsua da enpresen lehiakortasuna areagotzeko badugu. Fusio prozesuak, aliantzak eta partzuergoak bultzatu behar ditugu eta, zentzu berean, lankidetzarako beharko diren mekanismo guztiak, enpresen tamaina areagotzeko eta talde lehiakorrek finkatzeko.

Tamaina garrantzitsua eta beharrezkoa da. Baina ez beti, helburua ez baita tamaina handiagoa beste arrazoirik gabe bilatzea. Enpresa bakoitzak bilatu behar duena da bikaina izateko eta onenen artean lehiatzeko aukera emango dion tamaina lortzea. Horixe, hain juxtu.

Berrikuntza kudeaketan. Pertsonen parte hartzea

Zentzu berean azpimarratu nahi nuke berrikuntza ez teknologikoaren edo enpresen kudeaketaren berrikuntzaren garrantzia. Egia da gure enpresek nazioartekotuago egon behar dutela, egia da teknologia ona izan behar dugula..... baina horren guztiaren oinarrian egon behar du enpresa kudeaketa zuzena, kudeaketa ekonomiko/finantzario eraginkorra eta konpainia bakoitzaren negozio ereduaren definizio ona. Eta horiek, zalantzarik gabe, merkatuek, lehiakortasunak eta denbora berriek markatuko duten erritmoan eboluzionatu beharko dute.

Lan harremanak

Gaur egun gure enpresetan lan harremanen esparruan pairatzen dugun tentsioa ez da egoera zehatzetatik etorri, egoera horietatik azkenean irten beharko dugulako, eta ez da gure nortasunaren parte bat, ez da betiko jasan beharko dugun zerbait.

Aurkaketa giro hori aldatu ahal da eta aldatu behar da. Horretarako, kasu gehienetan, kudeaketa ereduaren birplanteamendu sakona beharko da, denen artean enpresen baitan bizi diren lan harremanen kultura aldatzeko. Kultura aldaketa honetarako tresna izan beharko dute elkarrizketek, informazioek eta parte hartzeak, eta parte guztiek izan beharko dute denon artean partekatzen duten egitasmoaren protagonista.

Finantzaketa "ezberdina". Finantzaketarako tresna berriak.

Krisiak erakutsi zizkigun geldirik geratzeak eta bankuen maileguen mende egoteak dakartzaten arriskuak. Enpresek finantzaketa bideak ugaritzeko modua bilatu behar dute eta beste molde batzuetarako urratsa eman behar dute (kolokazio pribatuak, nazioarteko bonoak, eta abar...)

Bankuek eta kutxek garapen industrialean eta gure Herrian erreferentziazko enpresa bultzatzaileak finkatzeko bete duten egiteko hori ezin du Kutxabankek egin. Eragile berria edo berriak bilatu behar dira eginkizun historiko hori bete ditzaten. Aldi berean EPSV delakoak berri behar ditugu eta mendebalde osoan horren pareko direnak egiten dutenarekin lerrokatu, hau da, etorkizunerako balore eta aberastasuna sortzea. Kanadatik eta gure Europar inguruko beste herrialde batzuetatik esan digute antzeko funtsek egiteko garrantzitsua dutela beren Herrialdeetako aberastasuna sortzeko orduan. Gure EPSVak ezin dira gaur egungo erronkei bizkarra emanda bizi.

Eta horrek, gainera, kudeaketa finantzario serio eta espezializatua behar du. Diziplina eta gardentasuna, azken finean.

Prestakuntza egokitzea

Berrikuntza eraginkorrak eta kalitatezkoak ezinbesteko du oinarrian kualifikazio handiko langile sarea, ekintzaile sarea eta kalitatezko unibertsitate sarea izatea... Prestakuntza, hezkuntza ezinbesteko elementua da, berebiziko garrantzia duena. Herri honek zer behar duen pentsatu behar dugu. Defizita daukagu hainbat lanbidetan. Eta, lanbide berriak sortuko dira enpresen digitalizazioaren garapenarekin batera .

Hezkuntza sistema bat, baina bereziki aldaketa horien aurrean adi egongo diren Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea behar ditugu, produkzio mundutik eta enpresen beharrezanetatik hurbilago egongo direnak.

Argindar sektorearen erreforma

Espainiar Gobernuak onartu duen erreformak zuzen zuzenean kaltetzen du euskal industria. Oro har, Euskadiko enpresa txiki eta ertainen sarea kaltetzen du eta, bereziki, argindar kontsumitzaile handiei egiten die kalte. Euskadiko enpresa siderurgikoek, porlan lantegiek eta antzeko beste batzuek energiaren koste altuak pairatzen dituzte eta ondorioz, lehiakortasuna ere galtzen dute.

Baina, horrez gain, energia berriztagarrien sorreraren alorrean beste herrialdeetan dagoen araudiaren antzekorik ez izateak inbertsoreak urruntzen dituen ezegonkortasun juridikora eta ziurgabetasunera garamatza. Gure herriaren hazkundera ahalbidetuko duen araudia izango duen energia eredu behar dugu, gure enpresei lagunduko diena, beren lehiakortasunari etengabeko oztupoak jarri beharrean.

Siderurgia sektorea, gaur egun

- Diagnostika

Zailtasun orokortuak

- Merkatuaren beherakada
- Kostek
- Txinako lehiakortasuna

- Merkatuak: bereziki garrantzitsua da eraikuntza eta herri lanen sektorean eman den beherakada. Era berean murriztu dira egitasmo estrategikoak eta beste sektore garrantzitsu batzuk .

- Koste handiagoak estatuko lantegietan, Europako beste lantegiekin alderatuta: lehengaiak, logistika eta energia. Kostek behera egin duten arren, ezberdintasunak daude Europako enprekin eta/edo txatarraren kasuan, burdin minerala baino gutxiago beheratu da.

- Ondorioz, oso lehiakortasun latza dago europar esparru barruan. Egoera larriago bihurtu da Asiatik eta bereziki Txinatik datozen bolumenen gorakadarekin.

Inportazio hauek merkatukoak ez diren preziotan ematen ari dira (dumping jardura) eta altzairuaren sektorea kaltetzen ari da, baita altzairu transformatuaren sektore batzuk ere.

- Batasunaren politika laguntza publikoei dagokienez :

Europako altzairu sektorea birmoldaketa prozesu ezberdinetan dago gaur egun eta esan daiteke neurritz gaitasuna duela. Ondorioz, siderurgia sektorearentzako laguntzak bateraezin jotzen dira Batasunaren Hitzarmenarekin, gutxienez 2020 urtera arte.

Muga horrek ez du I+G+B esparruari eragiten.

- Eusko Jaurlaritzaren jarduerak :

- o Lehiakortasun alorrean:

- Kostek murriztera (prozesuak, efizientzia energetikoa eta abar) eta produktuen kalitatea eta sofistikazioa hobetzera bideratutako I+G+B politikak lehenesteko jarduna

- Kostek murriztera bideratutako politika energetikoak (estatu mailako lehiakortasuna).

- Logistika kostek hobetzeko politikak: garraio sektorean azpiegiturak eta 44Tonakoen araudia bultzatzea. Kluster zehatz batzuekin batera Industria Ministerioak abian jarri duen Premiazko Neurrien Planean jasota dagoen neurri hau bultzatu da, baina oraindik neurri hori ez da ezagutzera eman (estatu mailako lehiakortasuna)

○ Dumping jardueren kontrako neurriei dagokienez :

- Europa: Gobernuari neurriak eta ekimen zuzenak hartzea eskatzeko parlamentuko ekimenak, europar merkatuaren babesa bultzatzeko. Lehendakaria eta Garapen Ekonomikoko Sailburua Bruselara bidaiatu ziren.

- Estatua: Industria Ministerioan Altzairuaren Mahaitik dumping jardueren kontrako neurriak sustatzeko ekimenak. 2014 urtean Industria Ministerioak altzairuari buruzko lan taldea eratu zen eta 4 bilera egin dira: energia, ingurumena, merkataritza eta azkena 15/11/26an izan zen eta Txinako Dumping-aren gaia jorratu zen. Azken honetan Alex Arriola izan zen.

- **Dumping jardueraren kontrako jarrerak:**

- 2016 urtean Txinari ez ematea "merkatuko ekonomia" deitura. Txinak 5 irizpide bete behar ditu 2016 urtean "merkatuko ekonomia" deitura jasotzeko, baina ez du ematen lortzeko moduan egongo denik.

- Europar Batasunaren baitan erabakiak hartzeko denbora tarteak murriztea, 9 eta 12 hilabeteko tarte hartu ahal duten dumping-aren kontrako neurrien denboren aurrean.

- Neurri zehatz eta premiazkoak martxan jartzea, Txinako altzairuak prezio baxuetan eta kopuru handitan hel ez daitezenez, bereziki produktu lauen alorrean, gaur egun dumping-aren kontrako neurririk ez dutelako.

Txina 2001 urtean sartu zen Munduko Merkataritza Erakundean. Aldi baterako akordio baten bidez sartu zen eta dumping-a zehazteko metodologia zehatz batekin. Hainbat zentzutan akordio hori 2016an geratuko da indarririk gabe.

ONDORIOZ

Euskadik egonkortasuna, ziurtasuna eta konfiantza ditu. Baina, aurrez-aurre aurkezten ari zaion aukerari eutsi behar dio, aipatutako esparru guztietan erabaki garrantzitsuak hartuz, lehiakortasun, industria eta etorriko diren belaunaldientzako etorkizun hoberako trena ez galtzeko.